

### Azkoitian, 1998ko martxoaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
 H. Knörr, buruordea,  
 P. Goenaga, idazkaria,  
 J. A. Arana, diruzaina,  
 P. Altuna,  
 M. Azkarate,  
 P. Charritton,  
 J. L. Davant,  
 X. Kintana,  
 F. Krutwig,  
 E. Larre,  
 J. M. Lekuona,  
 B. Oihartzabal,  
 Tx. Peillen,  
 J. San Martin,  
 I. Sarasola,  
 J. M. Satrustegi  
 eta A. Urrutia euskaltzainak  
 eta J. L. Lizundia,  
 idazkariorde-kudeatzailea  
 eta J. J. Zearreta, ekonomia eragilea.

zaio Ahoskera lantaldeko arduradun den L. Oñederra andreari proposamenaren aurkezpena egin dezan. Gai honek eramango duen egutegia zein izango den, alegia, arauaren berri jendeari noiz emango zaion, ez dakiela adierazi du aurkezleak. Bestalde, arauak izan dezakeen eragina dela eta, esan du horrelako arau bat ez dela nahikoa ahoskerak behar duen aldagarrtasuna gordetzeko.

Ondoren I. Sarasolak hartu du hitza: aurkeztu baino zerbait gehiago egiten hasi beharko litzatekeela. Saiatu beharko lukeela Euskaltzaindiak, ahal izanez gero, zerbait erabakitzen hasten, dena ezin bada ere. Aurkezpena baino zertxobait gehiago egin litekeela gaurko bilera honetan.

M. Azkaratek dio testua ez dagoela kaleratzeko moduan oraindik. Gainera, jardunaldi batzuk antolatuta beharko liratekeela arauaren nondik norakoak jendeari helarazteko.

Ildo honetatik, euskaltzain batzuek txostena aurkeztutzat eman zuten aurreko bileran eta, horregatik, oharrak ere helarazi dituztenez, oharrok aztertzen hasteari egoki iritzi dio Euskaltzaindiak. X. Kintanaren oharrak hartu dira, horrenbestez, aztergai. Toponimian, zubererako [y] ahoskera gordetzeko, <ü> grafia ere gorde beharko litzatekeela dio. B. Oihartzabalek erantzun dio esanaz arau hauek hizkuntza arrunterako direla eta ez izen berezi, pertsona izen eta abarretako. Hauek arazo bereziak dituztela.

Ondoren, eztabaida luze xamarra izan da <ea> / <oa> idatzitakoen ahoskeraz. Maila kontua da, formaltasun handiagoa edo txikiagoa. Dena den, txostenean esaten

Azkoitian, udaletxeko batzar gelan, 1998ko martxoaren 27an, goizeko hamarretan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak hileroko batzarrari. Bildu diren euskaltzainen izenak ezkerreko zutabeen jasoak dira. Ezin etorria adierazi dute X. Diharceek eta F. Ondarrak. A. Urrutia, berriz, arratsaldeko bilkurara soilik etorri ahal izan da.

#### *Aktak onartzea*

Joan den hileko bi agiriei ez die inork oharrik egin. Horrenbestez, dauden daudenean onartu dira.

#### *1. Hizkuntza arauak*

##### *1.1.1. "Ahoskera batuaz" izeneko txostena aurkeztea*

Aurreko bileran banatu zen txostena baina ez zen oso argi geratu banatze hori aski aurkezpen ote zen. Horregatik eskatu

dena agian modu leunagoz eta argiagoz esatea komeniko litzatekeela adierazi da. H. Knörr jaunaren ustez, araua jasoko duen testuak sarrera on bat beharko luke, jendea aztoratu nahi ez bada.

Nolanahi ere, orohar, ados dira euskaltzainak banatu zaien txostenarekin. Jasotako oharrekin, ahoskera lantaldeak maiatzeko batzarrean aurkeztuko du proposamen berri-tua, ekainean onartuko dena, egoki iritziz gero.

### 1.1.2. *Hiztegi batuko zerrendan zintzilik utzitakoak*

Aurreko bilera batean *irabazbide* sarrera erabakitzeke gelditu zen. Euskara Batuko batzordeak, normalean Euskaltzaindiaren jarrera bide erregularra bultzatzea bada ere, datuen aurrean, *irabazpide* forma proposatzen du kasu honetan. Proposamena onartu da. Hortaz, *irabazpide* ezarriko da dagokion lekuan.

*Jentilizio / gentilizio* hautua ere zintzilik utzi zuen Euskaltzaindiak. Hemen dagoen ahoskera arazoa erabaki arte zerrendan ez sartzea litzateke zuhurrena. Gainera, frantsesez ere ez da erabiltzen hitz hau. Gehienez ere bigarren itzulirako izango litzatekeela dio batzordeak. Arrazoi hauen aurrean, azkenean zerrendatik kentzea onartu da.

*Jaundone / jondoni* auzia ere ez dago argi oraindik. Argitu arte zerrendatik kentzea litzateke proposamena.

### 1.2.1. *Hiztegi Batuko kontsumitu-lan zerrenda amaitzea*

X. Kintanak, H. Knörrrek eta A. Urrutiak egin dituzte zerrenda honi buruzko idatziko oharrak. Lehenbizi, X. Kintanarenak aztertu dira.

*Kontsumitu*-rekin batera *kontsumatu* ere egoki ikusten du sartzea ohargileak. Ez da onartu, oraingo itzuli honetarako behintzat. *Koraza*-ren parean *halakret* ezartzea ez da onartu. Hitz hau Leizarragak bakarrik omen darabil. Hurrengo itzulirako izango litzateke.

*Korroko*i hitzaren baliokidetzat *lazun* ematea onartu da, eztabaidaren ondoren.

*Kristalari, kristaldegi* eta abarrez izan da hurrengo eztabaida. Sarrera horiek kentzea onartu da azkenean. *Kristal* sarreran, berriz, 1. *Mineral*, 2. *Kalitate handikoa*. 'Bohemiako kristala' gehitzea onartu da.

*Krupeta*-ren parean *krispeta* ere sartzeko eskaria dela eta, bigarren itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

*Kua* onomatopeia sartzea ez da ontzat eman. Ez da beharrezko ikusi.

Ondoren, H. Knörr-en oharren azterketari ekin diote euskaltzainek.

Onartu da *kontxo* sarreran Heg. eta Lgrt. dela adieraztea. Onartu da, halaber, *ko-raina e. kodaina* sartzea eta baita *kosmopolita* eta *kosmopolitismo* ere. *Kostatu*-ren sarrera ere zuzentzea onartu da: *kosta(tu)*. *Kostarik* ere sartuko da. *Kotsu* ere sartuko da: *Kotsu\* e. kutsu*. *Krimen* sarreran 'lege hauste larria' dela adieraziko da.

*Kristo* letra larriz behar omen luke. Zerrendatik kentzea onartu da. *Kristoren* sarrerari, berriz, 'Lgrt.' oharra erantsiko zaio eta *kristorenak* azpisarrera emango.

*Kutizia\* e. gutizia* sartzea onartu da. *Kurruka* ere sartuko da, '(usoaren) urruma' erantsita. *Lagunkin* hitzari ere sarrera egin zaio, Ipar. 'jendekina' dela adieraziz. *Laket* sarreraren izenondoa dela esango da eta *gizon laketa da* adibide gisa erantsiko.

Bigarren itzulirako utzi dira *kontzesibo*, *kontziente*, *kopulatibo*, *krida / kridatu / kridatzaile* eta *kuzina*.

Bestalde, ez da onartu *koraza* eta *korazatu*-ri buruzko oharra, ez eta ere *kordoka* sarreraren *kordokan ezarri* esapidea sartzea. *Korrikari eman* esapidea sartzea ere ez da onartu. *Koskan izan* esapidea sartzekotan, bigarren itzulian izango litzateke.

*Koskor* sarrera bere horretan uztea erabaki da. *Kulero* hitzaz ere eztabaida izan da, Heg. eta Lgrt. oharra erantsi ala ez. Azkenean, zerrendatik ateratzea onartu da. Bigarren itzulian izango du aukera, agian. *Kultu* hitzari buruzko oharra ez da kontuan hartu zerrendan proposatzen dena gauza bera baita. *Kume* hitz beregain bezala erabiltzen denez, ez da kontuan hartu Knörren oharra. Hala ere, zerrendan ageri den *Bizk batez ere* delako oharra ezabatu egingo da. *Kunplimendu* hitza sartzeko eskaria ez da onartu. *Kuriostate* sartzeko premiarik ere ez da ikusi. *Laborri*-ren sarreraren *izu-laborriak* esapidea sartzea eskatzen du ohargileak, baina esapide hori bere lekuan sartua ageri da.

*Laineztu* sartzea eskatzen du H. Knörrek. Batzordearen ustez *laineza hartu*-rekin aski da. Hitz horren grafiaren eztabaida ekarri du horrek: *laineza* ala *lañeza*? Azkenean, zerrenda bere horretan uztea erabaki da. Ondoren *laino / laño* eztabaida sortu da. Azkenean bi formak onartu dira, bi hitz bereizteko: *laño* 'barea' eta *laino* 'behe lainoa'.

Bazkariko etenaldiaren ondoren, arratsaldeko lauetan ekin dio Euskaltzaindiak be-riro lanari. Oraingoan A. Urrutiaren oharrak jarri dira mahai gainean. Onartu da zerrendan sartzea *kontu(-)emaile*, *kontzientzia(-)eragozpen*, azpisarrera gisa, *korbeta*, *korridore* eta *kremailera*. Bestalde, onartu da *lagun hurko* azpisarrera eranstea *lagun* sarrerari.

Hurrengo itzulirako utzi dira *kopetadun*, *koreografia*, *koreografo*, *kortxea*, *krema*, *kukustu / kukuts*, *kupo*, *laborista* eta *laburbide*. *Lagapen* hitzari ere, datu gehiagorik gabe, ezin zerrendaratuazkoa iritzi zaio.

Bestalde, *koñak* hitza alfabetoz dagokion lekuan sartuko da. *Krismet* sarrerako *kisketa* azken bokala gabe ematea egokiago ikusten du ohargileak. Batzordeak dituen datuen arabera, *kisketa* behar omen du. Horrela utziko da, horrenbestez, zerrendan.

Eta hemen eten da hiztegiaren azterketa. Eztabaidarako markatuak dauden hitzak hurrengo bileran aztertuko dira.

Ondoren, *lekora - lozorro* hitz zerrenda banatu da.

## 2. Euskaltzain ohorezko izan daitezkeen proposamena

Zuzendaritzaren eskutik datorrena da proposamen bakarra. Honako hauek osatzen dute zerrenda: Julene Berrojalbiz, Jesus Atxa, Karmele Esnal, Marie-Jeanne Minaberi, Jaime Kerexeta, Xabier Gereño, Karmelo Etxenagusia, Jose Antonio Loidi, Eugenio Agirretxe eta William Anthony Douglas jaun-andereek.

Hautagai guztiak jakinaren gainean ote dauden galdetu da. Baietz erantzun da. Bestalde, halako iritzi trukaketa bat izan da zerrendakideei buruz eta horrela utzi da kontua. Hurrengo bileran onartuko dira izendapenok.

### 3. Eskuartekoak

#### 3.1. Euskadi saria dela eta

Aurten ere Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak giza eta gizarte zientzien arloan gehien nabarmendu den curriculumara saritzeko deialdia egin dutela gogorarazi zaie euskaltzainei. Joan den urteko saria L. Villasantek jaso zuen. Aurten Euskaltzaindiak, erakunde gisa, ez du inolako proposamenik egin.

#### 3.2. Seberetxe

Duela urte batzuk hil zen Francisco Javier Martinez Pardo jaunak Euskaltzaindiari *Seberetxe* izeneko jauregiaren laurdena utzi zion testamentuan. Dagokion parte hori jasotzeko eta notaritzan egin behar diren eskriturak eta gainerako tramite guztiak bideratzeko, J.A. Arana diruzainari ahala emateko proposamena egin zaie euskaltzainei, honen bidez Euskaltzaindiak onar dezan utzi zaion ondarea. Horrezaz gainera, egin behar diren konponketa premiazkoenak bideratzeko ere ahala ematea proposatzen da. (ik. eranskina).

Urrutia jaunari bere iritzia eskatu zaio. Ezkor xamar agertu da, eraikuntzaren egoera eskasa dela eta, baina onartzearen aldeko dela esan du. Euskaltzainek aho batez onartu dute idatziz egin zaien proposamena.

Eta besterik gabe, arratsaldeko bostak eta hamarrean amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Azkoitian, 1998ko martxoaren 27an*

Azkoitian, Udaletxeko batzar aretoan, 1998ko martxoaren 27an, arratsaldeko 6etan, hasi da Josef Frantzisko Aizkibelen bigarren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak antolatutako batzarra. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, X. Kintana, F. Krutwig, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzain osoak eta A. Aranburu, X. Aranburu, M. Atxaga, R. Badiola, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.